

BERRI OROKORRAK

2022ko azaroaren 25ean 12. zenbakia

IKASTOLEN TXOKOA

- **IRITZIA: eredu berri bat Euskal Hezkuntza Sistemarako**

Hona [hemen](#) Ikastolen Elkarteko lehendakariak eta zuzendari nagusiak Euskal Hezkuntza Sistemarako eredu berriaren inguruko idatzia.



- **Seaskako egutegia:** Urtero bezala SEASKA ikastolen federazioak bere egutegiak argitaratu ditu, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko ikastolak laguntzeko. **Prezioa 4 eurokoa da.**

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Azaroaren 30ean izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Artezkaritza Kontseiluaren eskertza

Artezkaritza kontseiluak atzoko egunez ospatu zen Ikastolako Batzar Orokorrerara bertaratuta guztiei eskerrak eman nahi die. Mila esker!!



EUSKARA EGUNA

Abenduak 2, Euskaraldiaren amaierarekin bat eginez eta euskara egunari (abenduak 3) begira, ekintza ugari antolatu ditugu herriko gune ezberdinetan egiteko. Ekintza hauen artean, gonbidatuak zaudete, 11:50 Mikel Laboa plazan LH-ko ikasleekin batera abestera eta arratsaldean 16:15ean HH-koekin batera ikastolako jolastokian. GORA EUSKARA!!



Ekotalo tailerra

Dakizuen bezala Aibak enpresak Ekin Food proiektu pedagogikoaren barruan jangelako bazkaldarrei zuzendutako zenbait ekintza antolatzen ditu. Oraingo honetan, HH 4tik LH 6ra bitarteko ikasleei zuzenduta EKOTALO tailerra antolatu du.

Azaroaren 28an egingo da, 12:30ean LH3-LH6 bitarteko ikasleekin eta 13:15ean HH4-LH2 bitartekoekin. [Hemen](#) informazio gehiago.



Mari Domingiren errepublika magikoa

Orereta ikastolak antolatutako jarduera honen berri emateko, informazioa banatuko diegu gaur HH eta LHko 1. eta 2. mailako ikasleei.

Mari Domingiren baserrian, haurrek aintzinako bizimodua nolakoa zen ezagutuko dute. Usadio zaharrak eta ohitura berriak uztartuz, Eguberri berrienaz gozatuko dute.

Informazio gehiagorako, hona hemen webgunea: www.maridomingi.eus



Neguko katalogoa

Ohi den moduan, urte-garai honetan, Ikaselkar-eko [neguko katalogoa](#) helarazten dizuegu.



Gurasoentzat euskara-tailerrak

UEMAK **bi tailer** eskaintzen ditu gurasoentzat: bat euskara ikasteko EUSKARA EZ DAKITENENTZAKO TAILERRA eta bestea euskara jakin arren, gaztelaniaz hitz egiteko joera duten haientzat MOTIBAZIO TAILERRA.



MOTIBAZIO TAILERRA: motibazio tailerra.

- Hartzaileak: erdararako joera duten herritarrak.
- Helburua: hizkuntza praktikez hausnartzea, eta gaztelaniarako joera duten herritarrak euskaraz egitearen balioaz ohartaraztea.
- Iraupena: 2 ordu.

Tailer honek herritarra bidaia batean murgiltzera gonbidatzen du, bere joerak azter ditzan eta euskaraz ez egiteko arrazoiak identifika ditzan. Helburua izango da euskaraz ez egiteko arrazoi horiek, pixkanaka bada ere, euskaraz egiteko arrazoi bihurtzea.

EUSKARA EZ DAKITENENTZAKO TAILERRA: euskara ez dakiten herritarrentzako kontzientziazio tailerra.

- Hartzaileak: euskaraz ez dakiten herritarrak.
- Helburua: euskaraz ez dakiten herritarrak ohartzea euskararen balioaz eta beraiek hizkuntzaren garapenean izan dezaketen funtzioaz.
- Iraupena: 90 minutu.

Tailer hau oso interesgarria da udalerri euskaldunetan bizi diren guraso erdaldunentzat. Parte-hartzaileek sentitu behar dute, oraingoz, euskaraz ez jakin arren, badirela euskararen alde egin ditzaketen eguneroko ekintzatxoak, jarrera dela gakoa.

Interesa izanez gero, animatu eta **jarri ikastolarekin harremanetan** zuen seme-alaben tutoreen bitartez ala idazkaritzara deituz edo e-posta baliatuz.

Taldeak osatuko balira, bilera batean adostuko lirateke tailerrak aurrera eramateko egunak eta orduak.

HAUR HEZKUNTZA

Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa bat ekarri behar dutela.



LEHEN HEZKUNTZA

Igeriketa-sustapenerako plana

Gogoratu, astelehenean, hilak 28, 2A taldeko ikasleek igeriketa ikastaroari hasiera emango diotela. 14:30ean kiroldegiko sarreran elkartuko gara. [Hemen](#) xehetasunak.



LH 5eko familiei zuzendutako oharra

Abenduaren 1ean, osteguna, ikasleek orain arte ikasi dutenarekin **EMANALDI bat** egingo dute. Emanaldia **ikasleen gelan** izango da eta bertan **aitiona-amonak egotea gustatuko litzaiguke!**

14:45ean Ageri-Aldeko eraikinean elkartuko gara. Gelara igotzeko igogailua erabiltzeko aukera izango da.

EMANALDIA arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara izango da.



Haur eta gaztetxoentzako irakurketa-solasaldia

Sutegi Udal-Liburutegian haur eta gaztetxoentzako irakurketa-solasaldiak prestatu ditugu. Bi saio izango dira, biak ere, Yolanda Arrietak gidatuko dituenak.

Saioetan parte hartzeko, aldez aurretik, Yolanda Arrietak eta liburuzainok hautatu dugun liburua irakurtzea eskatzen da;

liburuak jada eskuragarri daude Liburutegian. Leku mugatuak direnez, izena eman behar da Liburutegian bertan.

Hauek saioak:

- **LH 3-4: abenduaren 20an, asteartea, 18:00etan.** Mintzagai izango dugun **liburua: Juan Kruz Igerabideren EUSKAL HERRIETAKO IPUIN GAIZTOAK.**
- **LH 5-6: abenduaren 23an, ostirala, 11:00etan.** Mintzagai izango dugun **liburua: Yolanda Arrietaren NITAZ AHAZTU DIRA.**

[Hemen](#) informazio osoa.

